Mutrikuko herri-aldizkarixa
2021eko ekaina - 217 zkia.

KALAPUTXI

Gazteak gazteei laguntzen, Gztetxean



MAITE ETA VIRGI
Karamelu usain gozotan hazitakoak

Virginia

Narvaezen bilduma eta Nautilus ikasgela
Aurtengo udara eta Covid-19
Gerra aurreko Emakume Abertzale harek (II)
Goizargi Arantzamendi Ingalaterran



IBARPLAS

· LEIHOAK · ATEAK ·

Itziarko Poligonoa, C5
20829 ITZIAR
Tel: 943 19 92 26

www.ibarplas.com
email: ibarplas@ibarplas.com

Telefonoak

Osasuna

COVID-19 KORONABIRUSA
OSASUN AHOLKURAKO TEL. ... 900 20 30 50

Larrialdiak 943 46 11 11
Anbulatorioa 943 60 43 00
DYA zentrala 943 46 46 22
Mendaroko ospitala 943 03 28 00

Botikak

Lasuen-Elezgarai ..... 943 19 50 26 / 626 61 13 92
Lon Apraiz ..... 943 60 32 50 / 630 05 50 97
Amaia Zalduegi 669 26 22 01
Hiart Burgoa 667 33 88 90
Arantzazu Izpizua (Eibar) 943 20 19 12

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea 943 60 32 44
Udaltzaingoa ..... 943 60 70 48 /679 16 25 00
Gizarte Ongizatea 943 19 50 81
Anai Arte bulegoa 943 60 42 47
Anai Arte taberna 943 60 34 10
Mikel Deuna Zaharren Egoitza 943 60 38 71
Eguneko Zentroa 943 60 38 71
Turismo Bulegoa 943 60 33 78
Bake epaitegia 943 60 70 49
Kiroldegia 943 60 31 75
Liburutegia 943 60 41 82
Miruaitz pilotalekua 943 60 41 91
Ur Kontsortzioa 943 00 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak 943 70 07 99
Posta zerbitzua 943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola 943 60 36 75
San Miguel Ikastetxea 943 60 31 95
Mutrikuko BHI Institutua 943 60 35 45
Kardala Akuakultura Institutua 943 60 71 37
Udal Euskaltegia 943 60 30 94
Udal Musika Eskola 943 60 37 80
Haurreskola publikoa 943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

ANSOLA taxia 638 67 23 83
XABI taxia 656 28 90 26
Lurraldebus 943 41 52 08
Pesa Autobusak 900 12 14 00
BizkaiBus 902 22 22 65
EuskoTren 944 333 333
Loiuko Aireportua 905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia 943 60 39 87

Iritzixa

Iñigo Arrizabalaga Alberdi

ALDAERAK

Pernando Amezketarrak esan omen zuen ez dagoela galdera zailik, galdera guztiak omen dira errazak, erantzunak omen dira zailak. Ados nago. Batez ere urteak daramatzadalako galdera berdinari erantzuten: “Filosofia ikasi zenuen? Zerbaitetarako balio al du ba horrek?” Oso galdera erraza da egiteko, baina oso zaila erantzuteko, batez ere galderak pentsatu gabe egiten dituenari erantzuten ari zarenean.

Ba besteak beste, aldaerak lantzen ditu filosofiak. Ez Birusaren aldaerak, horiek birologoek lantzen dituzte, eta ezta txertaketa prozesuen aldaerak ere, hori agintarien esku baitago. Filosofiak gauzen izatea lantzen du, ideien eta hitzen zentzua, falaziak (egia itxura duten gezurrak) eta hauen aldaerak ere bai.

Aurreko kalaputxin Garbiñe Garagarzak idatzitako iritzi artikuluak esaterako (Garagarza G.“Hitzak baino gehiago” kalaputxi 216.2021), zerbait piztu zuen nire baitan. Zaintzaz mintzo zen, eta irakurri eta berehala Juvenal poeta erromatarren esaldi ospetsua etorri zitzaidan burura “quis custodiet ipsos custodes” (nork zaintzen du zaintzailea?). Nork zaintzen du erizaina? Eta nire ama? Eta polizia? Eta epailea eta agintaria? Eta Covid-arekin gertatzen den bezalaxe, subjektu berrien agerpenak, kasu honetan agintari eta epaileak, esaldiaren “aldaera” berri bat sortzea eragin du: Eta nork engainatzen du engainatzailea?

Esan dut hasieran, ni ez naiz medikua, ez naiz birologoa, eta are gutxiago txertoetan aditua, nire alorra pentsamendu kritikoa da, eta beraz badakit galderen erantzunetan oso zaila dela egia bilatzea, besteak beste honek gaiarekiko ezagutza eta jakintza eskatzen dituelako. Eta hortxe sortzen da arazoa nire ustez, gaiarekiko ezjakinak direnak erabakiak hartzeko arduradun bilakatzen direnean. Ba esan: Ez daukagu ideiarik ere zer egin behar den. Eta punto.

Zoritxarrez asko kostatzen zaigu zerbaitetan ari garenean gure ezjakintasuna adieraztea, eta asmo onez bagabiltza, zintzo jokatzea egia onartzea da, batez ere, egoera hain korapilatsua eta larria denean, eta jokoan herritarren osasuna dagoenean. Beste kontu bat da gezurraren atzean asmo ezkutuak izkutatzen badira, ekonomikoak edo politikoak. Orduan bai, orduan garbi dago zer den: falazia bat.





www.lurraldebus.eus 900 300 340 (08:00-20:00)

astelehenetik ostiralera

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	6:15	9:50	12:50	17:50	20:00	
Ondarroa	6:40	10:15	13:15	18:15	20:25	
Mutriku	6:45	10:20	13:20	18:20	20:30	Deberaino (20:40)
Donostia	(*) 7:55	11:30	14:30	19:30	....	(*) Unibertsitatetik

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	8:00	11:00	(*) 14:30	18:00	20:30	(*) Unibertsitatetik
Mutriku	8:50	11:50	15:25	18:50	21:20	
Lekeitio	9:35	12:35	16:10	19:35	22:05	

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	7:15	orduro	20:15	21:25	22:15	22:45
Mendaro	7:50	orduro	20:50	22:05	22:25	22:55
Eibar	8:15	orduro	21:15	22:30	22:45	23:15
Mallabia	8:30	orduro	21:30	22:45	....	....

DB04 MALLABIA-ONDARROA

Mallabia	6:00	6:45	orduro	20:45	21:25	22:05
Eibar	6:10	7:05	orduro	21:05	21:45	22:15
Mendaro	6:35	7:35	orduro	21:35	22:10	22:30
Mutriku	6:55	7:55	orduro	21:55	22:30	22:40

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	6:25	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25
Deba	6:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40
Zumaia	7:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	8:10	10:10	12:10	15:10	17:10	19:10	20:10
Deba	8:40	10:40	12:40	15:40	17:40	19:40	20:40
Deba	9:15	11:15	13:15	16:15	18:15	....	....
Mutriku	9:25	11.25	13:25	16:25	18:25	....	....

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	8:45	10:45	12:45	14:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	9:15	11:15	13:15	15:15	18:15	20:15	22:15
Soraluze	9:40	11:40	13:40	15:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	7:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	7:45	9:45	11:45	13:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	8:00	10:00	12:00	14:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	8:20	10:20	12:20	14:20	17:20	19:20	21:20

larunbat, igande eta jai-egunak

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	8:00	12:30	17:00	19:00	
Ondarroa	8:25	12:55	17:25	19:25	
Mutriku	8:30	13:00	17:30	19:30	
Donostia	9:40	14:10	18:40	20:40	

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	10:30	14:30	17:00	(ig) 20:30	(lr.) 21:00	(ig) igande eta jai egunetan (lr.) larunbatetan
Mutriku	11:20	15:20	17:50	21:20	22:00	
Lekeitio	12:05	16:05	18:35	22:05	22:35	

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	(lr.) 7:15	8:15	orduro	20:15	21:25	(lr.) 22:15
Mendaro	7:45	8:45	orduro	20:45	22:05	22:25
Eibar	8:10	9:10	orduro	21:10	22:30	22:30
Mallabia	8:25	9:25	orduro	21:25	22:45	....

DB04 MALLABIA-ONDARROA

Mallabia	....	7:45	orduro	19:45	(lr.) 20:45	(lr.) 21:45
Eibar	....	8:00	orduro	20:00	21:00	22:00
Mendaro	....	8:35	orduro	20:35	21:35	22:35
Mutriku	....	8:55	orduro	20:55	(lr.) 21:55	(lr.) 22:55

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	8:25	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25
Deba	8:40	10:40	12:40	14:40	16:40	18:40	20:40
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	21:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	(lr.) 22:10
Deba	9:40	11:40	13:40	15:40	17:40	19:40	22:40
Deba	10:15	12:15	14:15	16:15	18:15	20:15	23:15
Mutriku	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25	23:25

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	(lr.) 9:45	11:45	13:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	10:20	12:20	14:20	18:20	20:20	22:20
Soraluze	10:40	12:40	14:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	(lr.) 8:40	10:40	12.40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	8:45	10:45	12:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	9:00	11:00	13:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	9:20	11:20	13:20	17:20	19:20	21:20

www.euskotren.eus

Bilbo - DEBA - Donostia

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Bilbo		7:00	20:00
Eibar	6:14	7:14	21:14
Elgoibar	6:24	7:24	21:24
Mendaro	6:33	7:33	21:33
DEBA	**6:44**	**7:44**	**21:44**
Zumaia	7:00	8:00	22:00
Zarautz	7:08	8:08	22:08
Orio	7:15	8:15	22:15
Errekalde	7:29	9:29	22:29
Donostia	7:38	9:38	22:38

Donostia - DEBA - Bilbo

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Donostia	5:50	7:50	20:50
Errekalde	5:59	7:59	20:59
Orio	6:14	8:14	21:14
Zarautz	6:20	8:20	21:20
Zumaia	6:29	8:29	21:29
DEBA	**6:43**	**8:43**	**21.43**
Mendaro	6:52	8:52	21:52
Elgoibar	7:01	9:01	22:01
Eibar	7:11	9:11	22:11
Bilbo	8:20	10:20	23:20

Bizkaibus 902 222 265

ONDARROA - BILBO

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	5:40	19:40
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25		
A3915 Durangotik	6:10	20:10
Ondarroatik Bilbora **zuzenean**: 6:30; 7:30		

jai egunak

A3916 Ermuatik	6:40	20:40
A3915 Durangotik	7:10	20:10

BILBO - ONDARROA

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	7:10	22:10
Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 Durangotik	7:40	21:40

jai egunak

A3916 Ermuatik	8:10	22:10
A3915 Durangotik	8:40	21:40

GUTUNA UDALARI

MUBAE (Mutrikuko Baserritar Elkartea) 2013. urtean sortu zen, landa auzoetan aurkitzen diren arazoak jaso eta udalari helarazteko, beste eginkizun batzuen artean. Arazo gehienak bideekin zerikusia dute; egoera txarrean aurkitzen dira baserri batzuetako bideak, eta horien artean batzuk konpondu diren arren badago zer konpondua. Horrez gain, bi urtetik honantz baso landaketekin daukagun arazoa azaldu genion udalari hainbat batzarretan, eta araudiaren aldaketa puntual batekin momentuko konponbidea izan zitekeela esan eta bi hiletik behin gurekin batzartzeko asmoa azaldu arren, ez dugu udalaren aldetik erantzunik jaso. Baserritarrak baztertuta sentitzen gara.
Hitzezkoak gara. NUN DAGO HITZA?

MUBAE



BAIKOR BAINA KONTUZ

Aspaldiko datuek erakusten digutenez, Covid-19 koronabirusak sortutako pandemiak gurean izan duen eraginak hobera egiten dihardu eta dagoeneko aste batzuk badira berdean gaudela, 50 azpiko intzidentzia tasarekin.

Udaren atarian, iazko uda gogora ekartzea besterik ez dugu konturatzeko zenbat eta zenbat kanpoko jende datorren gure artera. Horrekin batera, geu ere batera eta bestera mugituko gara. Biak batera, argi dago, birusaren kutsakortasuna kontuan hartuta, mugimendu horrek arriskuak ekarriko dituela kasuak ugaritzeko.

Hala ere, azken asteotako egoera ikusita eta txertaketaren martxa ona eta horren emaitza egokia kontuan hartuta, baikorrak izateko arrazoiak ditugula pentsa daiteke.

Hala eta guztiz ere, oraindik ere birusa gure inguruan dabilela jakinda, joka dezagun zuhur eta oraindik ere jarrai dezagun osasun agintariek zehazten dituzten arauak betetzen. Kontuz ibil gaitezen.

Normaltasuneranzko bidean, nork bere ekintzak zentzuz burutzea izango da denon artekoa zaintzeko modurik onena.

Joseba Palenzuela Arrieta, Alkatea





*Kalaputxi*k irakurleen gutunak plazaratzen ditu. Datozen ordenean eta espazioak eskaintzen duen aukeraren barruan, moztu edo hurrengo hilerako laga dezakegu. Gutunak izen abizenekin bidaliko dira posta arruntez edo posta elektronikoz.

Argitaratzailea
Karenka Komunikazio Elkartea
Barrenkale 12, behea
20830 Mutriku
Tel. 635 748 393
e-posta kalaputxi2001@gmail.com
Webgunea: www.kalaputxi.eus
Bloga www.kalaputxi.blogspot.com
Laguntzailea Mutrikuko Udala

Kolaboratzaileak
Iñigo Andonegi,
Josu Larrañaga
Tirada 2.200 ale
Lege Gordailua SS-787/01
ISSN 1579-4792
Inprimategia EUSKALINPRI
Banaketa Kalaputxi

Kalaputxi Herri-Aldizkarixak Mutrikuko Udalaren dirulaguntza jasotzen du:
Mutrikuko Udala

AURTENGO UDARA ETA COVID-19a

Iazko udaran kezkaz begiratzen genion herritarrok gure hondartza eta inguruetan ezohiko jende pila bilduta ikusteari, eta askok ekidin zuten bainura joatea puntako orduetan. Ondorioak nabari azaldu ziren Covid-19ak kutsatutako kopuruetan. Aurten Udalak zein aurreikuspen egin duen jakiteko, Herrizaintza Sailera zuzendu gara.

2020. urtean Covid-19ak kutsatuen datuan nabarmen igo ziren Mutrikun: ekainera arte 16 izan ziren guztira, eta uztailaren bukaerakoak eta abuztukoak batuta 87 kutsaturen kopurura igo ziren datuak. Inguruko herrietan, Deban kasu, datuak askoz baxuagoak izan ziren hilabete horietan, nahiz eta irailean 82ra iritsi ziren.

Herritarron artean, hondartza eta inguruko piszina eta moiletan pilatutako jende kopurua izan zen birusaren transmisio komunitarioan eragile, ez zirelako inguruko herrietan bezalako neurriak hartu gurean. Nola aurreikusten du udalak aurtengo udara?

Iaz, uda garaiak kostaldeko ia herri guztiak ustekabean harrapatu zituen. Hondartzarako protokoloen prestaketak egin ziren eta jende asko hurbilduko zela aurreikusten zen, baina inork gutxik aurreikusi ahal izan zuen hainbeste izango zela barnealdeko herrietatik kostaldera etorri zirenen kopurua. Hori urtean zehar ere momentu ezberdinetan gertatu izan da, ez udan soilik; izan ere, itxiera perimetralak kendu dituzten bakoitzean Mutrikuko kaleetan nabaritu egin da bisitarien kopuruaren gorakada, Euskal Herriko kostaldeko herri guztietan gertatu den bezala.

Baina ziur gaude iazko udan gure herriko kutsatuen kopuruaren igoerak eta hondartzek ez dutela zuzeneko kausalitaterik. Ikerketa askok baieztatu izan dute kutsatzeko arriskuak txikiak direla espazio guztiz irekietan, eta Mutrikuko hondartza eta inguruko piszina eta moiletan ikusi genuen argazki bera ikusi izan ahal zen Zarautzko Malekoian, Donostiako kaleetan eta kostaldeko herri guztietan, baina kutsatu kopuruak ez ziren gure herrian bezala igo.

Lehengo urtean momentuko esku-hartzeak egin ziren eta aurten ere gertatutakoa ez errepikatzeko helburuarekin ere egin dira, nabariena, aurtengo udarako TAO ordenantza berria. TAO gunean baimendutako orduak gainditzeagatik ezartzen ziren isunak berrikusi dira, eta hondartzatik gertu gehienez ere aparkatzea 5 orduko egonaldira mugatu da; horretaz gain, herriko kaleetan bertakoek soilik aparkatzeko aukera izango dute. Modu honetan hondartzara egun pasa datozenen kopurua murriztu nahi da eta hauen txandatzea bultzatu.

Gainera, aurten oporretara Euskal Herritik kanpora joango direnak gehiago izango direla aurreikusten dugu, ez baitago lehengo urteko beldur sentsazio hori kanpora joateko. Iaz itxita egon ziren barnealdeko zenbait herritako igerilekuak ere berriro irekitzea espero da eta iazko konfinamendu osteko askatasun beharraren sentsazioak ere behera egin duela uste dugu. Baina azken hauek hipotesiak besterik ez dira, eta jakin badakigu Mutriku gero eta erakargarriagoa dela eguneko turistentzat. Pandemia aurretik ere turisten kopurua urtetik urtera gorako tendentzian zetorren.

23/2021 DEKRETUAren XEDAPEN GEHIAGARRIAK beste batzuen artean hauxe dio: "*Hondartzak: Foru-aldundiek eta udalek mugak ezarri beharko dituzte hondartzetara sartzeko eta edukiera zehazteko, erabiltzaileen artean pertsonen arteko segurtasun-distantzia errespetatu dadin. Horretarako, mugak ezarri ahal izango dituzte hondartzetan egoteko denboretan, bai eta aparkalekuetarako sarbideetan ere, hondartzen edukiera kontrolatzea errazteko*".

Dekretuak aldiro-aldiro aldatzen doaz, eta gaur dioena hemendik 3 astetara agian bertan behera geratzen da. Urtebetean zenbat aldaketa izan dituen kontuan izanda, edonor erotu daiteke. Bestalde, txertaketa kanpaina abiadura hartzen ari da eta horrek gauzak lasaitzea dakar.

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

ASTIGARRAGA ANAIAK, S.L.U
ERAIKETAK
Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938
e-mail: astigarragamutriku@outlook.es
Txurruka Tteak., 28 behea - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

Tokiko udalek hondartzak mugatu ahal izango dituztela aipatzen du Dekretuak, eta horren lanketan gabiltza Gipuzkoako Diputazioarekin, eta aparkalekuei dagokienez mugak ezarri ditugu. Saturraran eta Ondarbeltz hondartzetan lehengo urtean bezalaxe hondartzen aforoa neurtzen duen kamera bat izango da, euskal kostaldeko hondartza guztietan bezala, eta aurtengoan herriguneko hondartzan ere jarri du Aldundiak, baina, iaz bezala, aforoa kontrolatzea oso zaila izango da. Urtebete beranduago egoera berdinean jarraitzen dugu, kamera bai baina beste baliabide gutxirekin. Hala ere, prentsatik ezagutu dugu Donostia bezalako hiriburu turistiko batek 3 hondartzetatik bakar batean soilik kontrolatuko duela aforoa, beraz beste herri batzuetan hondartzen inguruko aforo kontrola lasaitzen ari dela ikusten ari gara.

Maiatzeko Kalaputxin Garbiñe Garagarza Lekubek, ondo borobildutako bere iritzi artikuluan, ZAINTZA eta BABESA hitzei ematen diegun esanahiaren inguruan, Miren Amurizaren esaldi batekin bukatzen zuen: "ZAINTZEA ETA ELKAR BABESTEA, BETI ERE, ITO GABE BATAK BESTEA". Zein asmorekin heldu nahi dio Mutrikuko Udalak aurtengo udarari?

Pandemiaren hasieratik gure herriko bizilagunei elkar zaintzeko mezua behin eta berriz luzatu izan diegu. Pandemia hasi zenetik herritarrak babestea izan dugu helburu, norberaren burua zainduta besteak babestea. Eta orokorrean herritarren jokabidea hori izan dela nabaritu dugu. Oso harro gaude urte luze honetan mutrikuarrek izan duten jarrerarekin. Beti egongo da zer kritikatu eta zer hobetu, baina txalotzeko moduko portaera izan dugula iruditzen zaigu. Hau guztia ez da nolanahikoa eta luze egiten ari da guztion-tzat. Batzuk beldur handiz egon dira eta hala jarraitzen dute, beste batzuk lasaiago ibili dira eta batentzat babesa dena bestearentzat kontrola izan daiteke. 5000 pertsonatik gora gara, bakoitza bere izateko moduarekin, errealitatearekin eta pentsamoldeekin. Guztiak mutrikuar eta gu harro guztiez. Herri bezala komunitate bat garela erakutsi dugu, eta inor ez zegoen honetarako prestatuta. Hemendik ez askora, guztion irrifarrak ikusi ahal izango dugulako esperantza dugu, eta harrotasunez pandemia anker hau atzean utzi dugula esatekoa.

Bitartean, azken arraunkadak ematea besterik ez da geratzen, guztiok batera portuko bidetik ez aldentzeko.





LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

OKILA S.L.
SUKALDEKO ALTZARIAK
EBANIZTERIA
OKILA AROZTEGIA S.L.
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Faxa: 943 60 31 03

UR KONTSORTZIOAREN TELEFONOA

Badira telefono zenbaki batzuk gutxitan behar izaten direnak, baina behar direnean eskura izaten ez ditugunak. Ur kontsortzioaren telefonoa horietako bat da, eta aldaketa bat izango duela jakinarazi digute: Aurrerantzean, 943 00 22 22 izango da, orain arteko 902 30 22 22 zenbakia ordezkatuta. hurrengo batean behar duenak Kalaputxiren 3. orrian aurkituko du.

EUSKARA IKASTAROA UDAN

Debabe Udal Euskaltegiak UDA IKASTAROA antolatu du ekainaren 28tik uztailaren 23ra.

Izena emateko epea zabalik dago ekainaren 23ra arte.

Informazioa eta izena ematea, Euskaltegian bertan, Luardo Etxean, edota 943 603094 telefonora deituta.

ERIK MENDIZABAL BERRIZ TXAPELDUN

Ameriketako Estatu Batuetako Dania frontoian denboraldia bukatu berri da eta, berriz ere, Erik Mendizabal mutrikuarra txapeldun gertatu da. 34 urteko pilotariak bederatzigarren aldiz lortu du hiruko koroa preziatua bakarka, binaka zein kinielatan partida gehien berak irabazita. Zorionak Erik!

Goixarri anaiek, Ekaitz eta Aratz, Erikekin eta koadroko gainerako pilotariekin batera amaitu dute neguko sasoia eta dagoeneko gurean dira udaldia amaitu artean, udazkenean izango den Munduko txapelketa horizontean hartuta.



KORTAZAR ETA MANZISIDOR OMENDUTA

2021 urtea urte zaila izan da guztiontzat eta kirolarientzat ere hala izan da, baita goi mailakoentzat ere. Eta herrian goi mailan ditugun kirolariek urte borobila izan dute. Horren erakusgarri, Zesta Puntan Mikel Manzisidorrek Espainiako txapela irabazi izana, eta Mendi Lasterketetan Oihana Kortazarrek Espainiako txapela irabazi izana. Udalak omendu egin nahi izan ditu kirolari biak eta mutrikuar guztien izenean zorionak eman, eta beraien kirol-ibilbidean aurrera egiteko animoa eman. Oparoa izan dadila bion ibilbidea aurrerantzean ere!



LEA-ARTIBAI IKASTETXEA ITSAS GIROKO IRAKASKUNTZAN

Lea Artibai Ikastetxeak “Arrandegia eta arrantzaren eta akuikulturaren ondoriozko produktuen elaborazioa” formakuntza eskaini du langabeei zuzenduta. Prestakuntza-programa horri esker, parte-hartzaileek, dagokion ziurtagiri profesionala eskuratzeaz gain, praktikak gainditzen dituztenek gutxienez 6 hilabeteko lan-kontratua lortuko dute EROSKI dendetako arrandegietan. Markina-Xemeinen kokatutako Lea Artibai Ikastetxea Euskal Autonomia Erkidego osoan ikastaro hori eskaintzen duten bi zentroetako bat da.







MUTRIKU FT KOPAKO TXAPELDUN

Denboraldi berezi bati amaieraa bikaina eman zioten Mutriku FT-ko mutilek. Izan ere, Ohorezko mailako Gipuzkoako Koparen irabazle gertatu baitziren Amaikak Bat taldeari 2-0 emaitzarekin nagusituta Orioko futbol zelaian jokatutako partiduan.

Klubean entrenatzaile jardunean hamar urte, azken seiak nagusien taldean, egin ostean, Igor Elezgarai "Txaparro"k agur esan zion entrenatzeari, eta zenbait jokalarik ere agur esan diote konpetizioko futbolari.

Finaleko partiduak zerbait utzi bazuen ederra, Orioraino hurbildu ziren jarraitzaileak, autobusa eta trena hartu zuten gazteak aurrean ipinita. Aupa mutilak!



ESKOLA KIROLA ERALDATZEN


Oinherri herri hezitzaileen sareko herri askoren kezka da Eskola Kirolaren etorkizuna eta eraldaketa sustatzea. Lehen bilera Donostian egin ondoren Mutrikun jarraitu dute ekimenarekin, eta Eskola Kirola hezten duen gunea izanik, balio hezitzaileetan oinarritzea nahi dute: elkarbizitzako oinarrizko balioak, euskara, berdintasuna, aniztasuna... bultzatuz. Bildu diren herrietako partaideak ados daude aipatutako helburuarekin, eta argi dute herri bakoitzaren ezaugarrietara egokitzea behar-beharrezkoa dela, bertan dauden kirol talde, aisialdiko eragile eta elkarteekin lan bateratua eginez. Alegia, herri mailako lanketa izango da, eta, familien, ikastetxeen eta udalaren parte-hartzea ezinbestekoa da. Datorren ikasturterako Eskola Kirolaren urteko programazioa DBH-ko ikasleei zabaltzea da asmoa, ekintza anitzak eta ikasleen interesekoak eskainiz.



COVID-19a MAIATZEAN

Aspaldiko hilabeterik lasaiena izan dugu Mutrikun Covid 19 kasu positiboei dagokienez, hile osoan 3 kasu besterik ez baitira agertu. Apirileko datuen eragina amaitu denean gune berdean sartu gara, intzidentzia tasa 60tik beherakoan, eta gaur arte mantendu gara horretan. Intzidentzia zeroraino ere heldu zen hilaren 21ean, 22an kasu berri bat agertu bazen ere.

Udaren atarian, egoera onean abiatuko da Mutriku datuei dagokienez behintzat, eta, herritarren txertaketaren martxa egokia ikusita, pentsatzekoa da aurtengoa iazkoa baino hobeto datorrela. Hala eta guztiz ere, osasun agintariek emandako jarraibideei kasu egin beharko zaie eta denon artekoa denon artean zaindu. Aurtengoan ere, kontuz ibili beharko.



MAIATZA
3 positibo

					1	2
					0	0
					22	20
					414,00	376,36
3	4	5	6	7	8	9
0	0	0	0	1	0	0
18	17	15	14	10	10	8
338,73	319,91	282,27	263,46	188,18	188,18	150,55
10	11	12	13	14	15	16
0	0	0	0	0	0	0
6	5	4	2	1	1	1
112,91	94,09	75,27	37,64	18,82	18,82	18,82
17	18	19	20	21	22	23
0	0	0	0	0	1	0
1	1	1	1	0	1	1
18,82	18,82	18,82	18,82	18,82	0,00	18,82
24	25	26	27	28	29	30
0	0	0	0	0	1	0
1	1	1	1	1	2	2
18,82	18,82	18,82	18,82	18,82	37,64	37,64
31						
0						
2						
37,64						



Uzuri
RPS 183/12
ELGOIBAR - DEBA
optika audio
DEBA, Ostolaza 7 - Tel. 943 19 21 92
ELGOIBAR, San Frantzisko 21 - Tel. 943740359

Goizargi Arantzamendi Martinez

Mutrikutik Ingalaterrara ingeles ikasketak egitera

Goizargi Arantzamendi Martinez mutrikuarrak 3 urte daramatza Middelsbourghen, Ingalaterrako ipar-ekialdean. Maiatzean "English with Creative Writing" unibertsitateko ikasketak (hemengo Ingeles Ikasketak graduaren antzekoak) amaitu berri ditu, eta, nahiz eta Mutrikura bisitan itzuliko den, han jarrai-tzeko asmoa dauka. *Kalaputxi*k berarekin hitz egiteko aukera izan du bertako bizitzari, ohiturei eta bere esperientziari buruz.

Nolatan iritsi zinen Middlesbroughera?

Batxilergoko urte bat Ingalaterran egin nuen, Bristolen. Nahiz eta oso gustura egon bertan, urtebeteko gauza izan zenez Mutrikura bueltatu nintzen ikasketak jarraitzera. Gasteizen Ingeles Filologia egitea erabaki nuen baina ez zitzaidan gehiegi gustatu, eta faltan botatzen nuen Bristolen izan nuen bizimodua. Aukera bila hasi nintzen Ingalaterran eta unibertsitate batzuekin kontaktuan jarri ondoren Middlesbroughko unibertsitatean onartua izatea lortu nuen. Beraz, Gasteizko ikasketak utzi eta bertara jo nuen beste zerbait ikastera.

Zenbat denbora daramazu bertan?

Ia hiru urte. 2018an etorri nintzen "English and Creative Writing" izeneko hiru urteko gradua ikastera eta aurtengo maiatzean bukatu dut. Horko Ingeles Ikasketak graduaren gutxi gorabeherako baliokidea litzateke.

Nola moldatu zara bertako bizitzara?

Denbora pasa ahala ohitu naiz, prozesu bat izan da. Bristolen egon nintzenean gehiago kostatu zitzaidan moldatzea, gazteagoa nintzelako eta hizkuntza ez nuelako hain ondo menderatzen.

Middlesbroughera heldu nintzenean banekien gutxi gorabehera zer nolako kultura eta ohiturak zituzten hemen. Hala ere, batzuetan hemengo ordutegiak, jateko moduak eta bizitza sozialeko aspektu batzuk arraro xamarrak iruditzen zitzaizkidan. Horrez gain, asko lagundu didana nire lagun taldea izan da. Askotariko jendea izanda (Ingalaterra bertakoak, amerikarrak, Europako beste herrialde batzuetakoak...) dezente ikasi dut beraiekin hemengo bizimodu eta ohituren inguruan, baita beste herrialde batzuetako kulturei buruz ere. Azken finean, eroso sentiarazten zaituen jendez inguratuta zaudenean erraza da kultura edo bizimodu berri batera egokitzea.

Zer moduz ikasketekin eta hizkuntzarekin?

Ikasketekin oso gustura. Nahiz eta hasieran hizkuntza guztiz menderatu ez, irakasleak oso ulerkorrak izan dira horren inguruan eta poliki-poliki gehiago ikasi dut. Hizkuntza ikastea prozesu bat izan da, hasieran maila baxuagoa nuen eta ez nintzen gai nahi nuen guztia adierazteko. Orain askoz hobeto moldatzen naiz. Hala ere, badakit badaukadala ikasteko gehiago eta ikasiko dudala hemen denbora gehiagoz egonda.

Zer ezberdintasun edo antzekotasun ikusi duzu horko eta hemengo bizitzeko, ikasteko eta erlazionatzeko moduan?

Desberdintasun handiena alderdi sozialean ikusi dut. Estereotipoek esaten duten bezala, jendea "hotzagoa" da, eta kuadrila eta talde handietan erlazionatu beharrean, talde txiki edo banakako jardueretara jotzen dute. Horrez gain, berezko kultura gastronomikorik ez dutenez bazkari handiak ez dira sozializatzeko modu bat.

Ikasle bizitza ere oso desberdina da; orokorrean klase ordu gutxiago ditugu eta modu independenteagoan ikastera bultzatzen gaituzte. Adibidez, nire karreran ez dut azterketarik egin, unibertsitateak emandako baliabideak erabiliz nik aukeratutako gaiak ikertu izan ditut eta ondoren haien inguruan idatzi.

Hori bai, nahiz eta orokorrean talde handitan erlazionatu ez, unibertsitateak kirol talde eta elkarteetan parte hartzera bultzatzen ditu ikasleak. Honek asko errazten du jendea ezagutzea. Horrez gain, taberna bat dago kanpusean eta kirol taldeek asteazkenero ekitaldiak antolatzen dituzte kiroletan parte hartzen duten ikasleentzat. Unibertsitatearen aspektu hau da gehien gustatzen zaidana; igeriketa taldean sartu nintzen pandemia aurretik eta jende asko ezagutzeko aukera izan nuen.

Mutrikun denbora batez bizi eta gero gertatzen den bezala, denbora batez hemen egon ondoren jende gehiena ezagutzea lortzen da. Middlesbrough, Mutrikuren antzera, leku txikia da eta ikaslea zarenean unibertsitateko komunitatean murgiltzea besterik ez duzu. Horrez gain, herrialde askotako jendea etortzen da ikastera eta kultural-aniztasuna dago: besteak beste, Polonia, Errumania, Italia zein Ameriketako jende asko dago hemen. Askotan haiekin erlazionatzerakoan berdintasun kultural asko topatu izan ditut, alderdi sozial eta gastronomikoan batez ere. Berdintasun hori esango nuke izan dela askotan etxean bezala sentiarazi nauena.



Pandemiari dagokionez, zein da horko egoera?

Urte hasieran egoera kaxkarrean izan ginen, kasu kopuruak gora egin zuen eta gobernuak dena itxi behar izan zuen: unibertsitateak, eskolak, kiroldegiak, tabernak... Poliki-poliki gauzek hobera egin zuten apirilean eta orain kasu kopurua nabarmen jaitsi da txertoari esker. Unibertsitateak eta eskolak irekita daude orain, baita tabernak ere. Ekainaren 21ean, denak horrela jarraituz gero, normaltasunera itzultzeko esperantza dago, dena behin betiko zabaltzeko asmoa dute eta.

Noiz aurreikusten duzu Mutrikura itzultzea?

Uztailean bueltatzeko asmoa dut baina irailera arte bakarrik. Printzipioz, nahiz eta udan eta Gabonetan Mutrikura bueltatu, Ingalaterran bizitzen jarraitzeko asmoa dut. Oso gustura nago eta hemen lana bilatzeko asmoarekin geratuko naiz.

Zeren falta somatzen duzu gehien?

Mutrikuko harremanak: familia eta lagunak. Etxekoekin jatea egunero, lagunekin zerbait hartzera joatea edota kuadrilakoekin elkartu eta nonbaitera joatea. Horrez gain, asko sumatu dut etxeko jatekoaren falta: produktuen kalitatea, jateko ohiturak eta amaren bazkari goxoak... konpara ezina da hemen daukagunarekin!


Itxasotik gertu egotearen falta ere igarri dut, bueltatzen naizen bakoitzean horixe da ia gehien hunkitzen nauena. Hori eta eguraldia, lasai-lasai itxaso ondoan jartzea egun eguzkitsu batean... Nahiz eta pare bat hondartza izan hemen inguruan, ez da berdina izaten.

Itzultzen zarenean egingo duzun lehenengo gauza?

Gurasoei eta lagunei besarkada handi bat eman. Pandemiaren egoeraren ondorioz ez nuen aukerarik izan Gabonetan bueltatzeko eta ia urtebete da Mutriku zapaldu ez dudala. Orokorrean, faltan hartu dut maite dudan jendea eta herriko giro lasaia. Sekulako gogoa dut eguraldi onaz eta opor giroaz gozatzeko.

Pistinan bainu bat hartzea izango da egingo dudan lehenengo gauzetarikoa. Seguruenik neu izango naiz urteko lehenengo bainua hartu ez duen Mutrikuar bakarra!





OKINDEGIA
POTERO
DENDA.....943603643
OKINDEGIA.943604512

Jon naberan
DISEINU eta BERRIKUNTZAK, s.l.
Telf. 685 731 969

Maite eta Virgi Beitia Pizarro

Karamelu usain gozotan hazitakoak

Virginia Pizarrok eman zion hasiera ofizioari. Badira urte batzuk Maitek erretiroa hartu zuela eta Virgi izango da hurrengoa. Gertaera aitzakiatzat hartuta biekin bildu gara pasatako garaiak gogoratzeko asmoz.

Virginia Pizarro gaztea Zalamea de la Serenatik etorri zen Mutrikura ama eta ahizpa Saturrarango kartzelan zituelako. Eta Mutrikura ezkondu zen.



(Maite) Amak han eta hemen egiten zuen lan, zaku fabrikan, eskabetxean… ahal zen lekuan. Bere koinatuak, osaba Diegok, berak egiten zituen patata frijituak saltzen zituen Deban zeukan postu batean. Gure amari ere berak erakutsi zion karameluak egiten. Orduan Katu kaleko etxean bizi ginen eta gogoratzen naiz nola egiten genituen karameluak etxean, ikurrinaren koloreak zituzten piruletak… Horretaz gain, almendrak xigortzen zituen, almendra garrapinatuak egiten ikasi zuen…

(Virgi) Amak, astean zehar kanpoan lan egin ostean, asteburuetan postua jartzen zuen Beheko plazan; ohol bat eta bi asto jarri eta han jartzen zituen berak egindako kapritxoak, komikiak ere saltzen zituen… Zine emanaldia zegoenean, berriz, otarra hartu eta bertara inguratzen zela gogoan daukat.

Eta zuek laguntzen…

(Maite) Bederatzi urte nituela Extremadurara joan nintzen eta han egon nintzen amonarekin, kurtso bat bertan egin ondoren Mutrikura bueltatu nintzen. Gure amona, aldiz, hara eta hona ibiltzen zen, orain alaba batekin, orain bestearekin… gurean ere egin zuen denboraldia. Gu ahizpok ikasten ari ginen arren, asteburuetan amari laguntzea tokatzen zitzaigun.

Eta hurrengo saltoa lokal batera…

(Maite) Aurretik banku bateko sukurtsala izandakoa gure lantoki bihurtu zen. Nik, ikasten jarraitu arren, asteburuak amari laguntzen ematen nituen. Hemezortzi urterekin hasi nintzen eta erretiroa bertan hartu dut. Urte batzuetara Goiko parkean kioskoa jarri zuen amak. Han ere urte mordoxka egin eta parkea berritu behar zelako kiosko antzeko zera batean jarri ginen eta dena bukatutakoan orain den kioskora pasatu ginen.

(Virgi) Nik hamazazpi urte nituela hasi nintzen kioskoan lanean eta hil honen bukaeran hartuko dut erretiroa.

Baina lanak ez ziren honetara mugatu…

(Maite) Ez, ez. Ni nobiotan nenbilela Saturrarango kantinan egiten nuen uda, eta ekainetik iraila bitartean egunero joaten ginen Saturraranera lanera. Orduko kantinak ez du zer ikusirik gaurkoarekin, artisau lana zela esan daiteke; kafea lapikoan egindakoa eta abar… orduan halaxe ziren kontuak. Ondo egiten zen lana Saturraranen. Hogeiren bat urtez edo egongo ginen. Udalak kantina berritu egin zuen eta enkantera jarri zuenean besteek egiten zuten eskaintzak handiak zirenez aurrera ez egitea erabaki genuen.

(Virgi) Eta kantina utzi eta egunkariak saltzea erabaki zuen amak. Hemen bai egin genuela zalditik behorrerako saltoa, benetan lanari lotu ginela, jai egunik ez edukitzera

> *“lehen umeak zirenak orain guraso dira eta euren umeekin datoz*





kondenatu ginela. Urtean hiru egunetan jai egiteko aukera… Oporretara ere txandaka joaten ginen, batak oporrak hartu eta bestearen umeekin abiatzen ginen. Holaxe izan zen urte askotan.

Gogor lan egitea egokitu zaizue…
Gogorrena ordua asko egin behar izatea izan da. Lan fisikoa ere bada neurri batean, baina ordu luzeak egin beharra izan da gogorrena. Egunkariak oso goiz etortzen dira eta jendea martxan jartzerako dena prest izan behar genuen.

Baina laguntzaile finak izan dituzuela ezin ukatu…
(Maite eta Virgi) Halaxe da, esker txarrekoak izango ginateke Fernado eta Josu izendatuko ez bagenitu, laguntzeaz gain gu eramaten ere nahiko meritu izan dutelako.

(Maite) Fernandok jan behar izan ditu nire aldarte eta umore guztiak. Kantinan lanean egon ondoren kotxea hartu eta Donostiara eramaten nuen soldaduzka egiten ari zelako, zituen egun libreak nirekin lanean ematen zituen… pentsa!

Bezero mailan aldaketak izango ziren…
(Maite eta Virgi) Bai, zerbait aldatu da, denok aldatu garen bezala, baina oso gustura gaude bezeroekin. Ikusi dugu belaunaldi aldaketa, lehen umeak zirenak orain gurasoak dira eta euren umeekin datoz. Umeak oso jatorrak dira, oso bezero onak izan ditugula ezin ukatu. Ordu asko sartu behar dira bizimodua ateratzeko baina balantze positiboa izan dela esaten dugu.

Erretiroa hartzeko desiratzen…
(Maite) Sei urte izango dira nik erretiroa hartu nuela. Oso nekatuta egon arren pena ere sentitu nuen. Hala ere, jarraitzen dut lanarekin, eskaerak, kontuak, egunkarien itzulketak eta abarrak nik eramaten ditut.

(Virgi) Ni ere nekatuta sentitzen naiz baina era berean pena sentitzen dut. Niretzako garrantzitsua da jendearekiko harremana. Ordu asko zutik kioskoan baina badakizu… gustuko lekuan aldaparik ez. Gustukoa dut nire lana, bizia da, aspertzeko denborarik ematen ez duena… Badakit aurrerantzean bezeroen falta sumatuko dudala.

"eskerrik asko horrenbeste urtetan zehar bezero izan zareten mutrikuar guztioi!



ERAIKUNTZAK
OLATZ S.L.
Igeltseritza orokorrean, Txalet, Erreforma...
Tel. 943 60 44 10 / 670 41 42 23 - 24
Olatz Auzoa, Urrestieta Baserria - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

txirritxa.com
SAR ZAITEZ GURE WEB ORRIAN ETA AURKI EZAZU PROMOZIO BEREZIAK!
Tel. 946 832 600
Gardotza Industrialdea, 3 > 48710 Berriatua > Bizkaia

Gerra aurreko Emakume Abertzale harek (II)

Baliabide gitxirekin baiña lanerako gogo haundixarekin. Hola jarduten zeuen Emakume Abertzale Batzako mutrikuarrek. Batzuetan, Batzokiko gizonen laguntziarekin eta beste batzuetan euren kasa, baiña garbi eukitxa zer nahi zeuen bultzatu: euskeria, abertzaletasuna, siñismena eta alkartasuna. Andrazko hau edo bestia nabarmendu gabe, talde lana egitxen zeuen, bakoitzak zakixana, zakixan onduen. Eta, hori bai, dan-dana herrixaren alde.

Antzerkixa

EABko lokala zabaltziaz batera hasi ziran lanian. Antzezlanak edo, Mutrikun esaten zakuen bezela, beladak prestatzen zitxuen, batzuetan Batzokiko gaztiekin batera eta beste batzuetan eurak bakarrik: "Ongillearen Saria", "Uste diñat", "Amets goxuak", "Utzi biarko"... Bakarrizketak ere eskeintzen zitxuen, esaterako "Joxe Ebaisto" eta "Andre Poxpoliña".

Antzerki emanaldi harek bi klasetakuak izaten ziran, dramatikuak eta komikuak. Lehelenguak serixuaguak izan arren, gai ederrak lantzen zitxuen; bigarrenak, berriz, "jentiai barre eraitxekuak" izaten ziran eta gai ariñaguak ikutzen zitxuen.

1932ko San Jose egunian bi antzerki-lan taularatu zitxuen EABko aretuan: "Lore bat loitan" eta "Xabiroia". Lagun askok parte hartzen zeuen holako lanetan, horren ideia egitxeko, hona hemen lehelengo hortan parte hartu zeuenen izen-abizenak orduko prentsan agertu ziran bezela: Larrañaga'tar Xabiera, Bulaiñ'tar Karmen, Basurko'tar Pepita, Bulaiñ'tar Pilar, Txurruka'tar Karmen, Iriondo'tar Lorenza, Arkotxa'tar Tomasa, Piker'tar Juana, Aizpurua'tar Josepa eta Mendizabal'tar Miren.

Langamenditarra ezizeneko mutrikuar batek hau idatzi zoan prentsan (1932.03.24): [EABko lokala goguan] "*ez dute iganderik bi edo lau antzezkizunik eman gabe euren etxe apain aundi ederrean. Zer esanik ez, dana gure euskera maitean (...) Kayola ona daukate, bañon txoriak ere ez edozelakoak. Bejondaizutela zuei emakumeak!*".

Dantzak

Emakume Abertzale Batzakuek neska-mutillak dantzarako prestatzen zitxuen, jai haundixetan-eta plazara ertetzeko eta jente-aurreko erakustaldixak egitxeko. Euskal dantzen bitxartez euskaldunon izaeriari eutsi nahi zixuen. Neskak poxpoliñak ziran eta mutillak dantzari txikixak. Poxpoliñak abillak ziran zintxa-dantzan, dantzari txikixak, berriz, ezpata-dantzan.

Jaungoikua eta kristau-ikasbidia

Eleiz ospakizunak bereziki zaintzen zitxuen: EABko baten bat hiltzen zanian mezia atera, Galbaixora juan, San Iñazio eguna ospatu, Arantzazuko Ama Birjiñaren eguna... "*Arantzazu'ko Ama, Gipuzkoarron Zaindari aundiaren eguna genuan. Au zala ta, E.A.B.-k urtero eskeñi oi dion bezela, jaupa bat eskeñi zion Ama maiteari. Ostetza izugarria bertaratu zan.*" (1935-09-15, Argia).

1932ko Pazko bigarren egunian Mutrikuko EABk mezia antolatu zoan Galbaixoko eleizan, "*Galbaixoko baseliztxoan Kristo gurutzalduaren oñetan, izango dira jaupa ta beste txadonkizun batzuk goizeko bederatziretan. Agintarien aginduz gure ikastoletatik Kristoren irudiak kentziak eman diguten naigabea agertuaz*". Kontuan hartu bihar degu Errepublikan kurutze guztiak kendu zitxuela eskoletatik. Mutrikuko jeltzaliek, jakiña, pena haundiz hartu zeuen aldaketa haura.

Hau idatzi zoan Miren Piquer "Txitxo" mutrikuarrak: "*Aurtxoai, lenengotik Jaungoikoaren izen Donea erakutsi. Geure oitura garbiak maita erazi*" (1932.04.16, El Día).

1935eko urrixaren 27ko Argia astekarixan irakurri leikenez, Tranpakaleko lokalian dotriñia edo kristau-ikasbidia ere irakasten zixuen umiei: "*Gaztetxoak!! Negua badator ta asi bear gera lanean. Antzerkia, kristau-ikasbidea, irakusketak, abestiak, denakin asi bear gera. (...) Kristau ikasbidea asita dago, Emakumietan, arratsaldeko 5'tan. (...). Gaur (igandea) arratsaldean jai polita egongo da Emakumietan: Antzerkia, zozketa, olerkiak eta abar*".

Hitzaldixak

1932ko apirillaren 3an Julene Urzelai azkoitxiarrak hitzaldixa eman zoan "*Emakumeen aretoan*". Aberriaren aldeko hitzaldi horrei "*itzaldi aberkoiak*" esaten zixuen. Oso egokixak, itxura danez, JELen dotriñak zabaltzeko. Hitzaldixak entzuteko gar haundixa egoten zan orduan: "*Areto guztia beteta zegon, Ondarrutarrak ere asko ziran*".

Hitzaldi horren bidez euskal ohitxura onak zabaldu nahi zitxuen. Emakume abertzaliak eredugarrixak izan bihar ziran, bestiak beste, Espaiñia aldetik zatozen dantza lotuak-eta alde batera lagata: "*Emakumeak ez degu gero miñetik bakarrik izan bear abertzale. Gure eginkizunakin ere abertzaletasun ori azaldu bear degu. Dantza nastu ta ostontzeko nabarmenkeri guztiak utzita. Ikusi dezatela, emakume abertzaleak batzuek dioten baño emakume jatorragoak gerala*". (Txitxo. El Día, 1932-04-16).

Baiña hitzaldi guztiak ez ziran zuzenekuak... tartian baziran irrati bidez ematen zitxuenak. Gaur egun bide asko doz informaziua eskuratzeko: telebista, irratixa, internet... Gerra aurrian, batetik egunkarixak zozen eta, bestetik, irratixa. Azken hori toki gitxitxan entzun zeiken, EABko lokalian konparaziotarako: "*Radioa.-Atzo entzun gendun*



Donostiak eman zigun asteroko sayoa ta txoraturik egin giñaden... (..) Agirre jaunari entzuteko ere Euzko Batzoki'ko ta Emakume Abertzaleko aretoak bete-betiak egon dira, ta naiz Agirre jaunak entzun ez, bazan emen txaloa. Bejondaizula Agirre jauna!!" (1932-05-08).

Biharra zakaenei laguntzen

Gabonetan premixa haundixa zaken mutrikuarrak ere goguan eukitzen zixuen EABkuek. Jatekua partitzen zixuen otarratxuetan, baitxa umientzako erropak eta jostailluak ere. Emakumiek herrixan dirua eta erropia batzen zeuen eta gero dana antolatzen zeuen euren lokalian. Umetan sasoi haura ezagututako Itziar Andonegik eman diguz azalpen horrek. Goguan daka oraindik mutrikuarren eskuzabaltasuna, baiña hor ere maillak zozela ahaztu gabe: "*Gehixen ematen zeuen gitxien zakenek, eta aberatsenek gitxien ematen zeuen*".

1933ko Gabonetan EABkoek deialdixa egin zeuen prentsaren bidez: *"Gabonak badatorkiguz. Kristrauarentzat jai pozgarriak. Sendi guztia alkarrekin bilduta alaiki ospatzen degun gure Jaunaren jayotza. Apari goxoa... abestiak... soñua... Bañan... zoritxarrez sendi batzuetan, txirotasunak, jai zoriontsu ori ezertxorekin ospatzen uzten ez die. Abesti alaiaren ordez, otzez dar-dar eta gose diran umetxoen negarra...¿Nola joan ez maitetasunez beterik aingerutxo oyen malkoak legortzera?*".

Herri osuaren esker ona eukitzen zeuen bihotz oneko emakume harek. Prentsako bi adibide ekarri ditxugu hona; lehelengua Joseba Arruti "Arnope"ren eskutik: "*Etzaigu aztuko zuek, andereño agurgarri biotz onekuak, juan dan urtian, eguarrietan, egin zenutena "Euzko langillien" seme alaben arteko banaketatzaz nola zan kanastilla, erropa, jostailu politak eta abar*". (Argia, 1932-11-13). Bigarrena, berriz, Andoni Alberdi "Txikitxo"k Euzkadi egunkarixan idatzitxakua: "*Aurten ere aurre urteari jarraituz langabeko, ta txiroen sukalde bazterrak berotzea euren bizkar joan da. Larogei jaki xextotik gora banandu dituzte, orretzaz gañera aurtxoentzat erropatxoak*". (1936-01-03).

Diru aldetik estu zabiltzen familixei afarixak ere partitzen zixuen, 200 inguru. Eguraldi txarrak zirala, arrantza gitxi zauala… sarritxan horretako gehixenak arrantzaliak izaten ziran. Maitxasun haundiz jokatzen zeuenez, arrantzalien amatzat zaukezen askok.

1932ko Aberri Eguna

Orain arte esandakuaren osagarri, 1932. urteko Aberri Eguneko ospakizunen berri emango degu. Abertzale guztien arteko jai ederra antolatu zeuen. Adin guztietako mutrikuarrak batu ziran: ume, gazte eta helduak; eta, jakiña, andrazkuak eta gizonezkuak.

"Gurutz-ondo" idazliak El Día egunkarixan (1932-04-08) azaldu zoan bezperan Batzokiko txistularixak kalerik kale ibilli zirala, bixaramunian etorriko zan jaixa iragartzen.

Mutrikuarrak iñoiz ez dira ibilli txikikerixetan, urte hartan ere ez. "*Illuntzian zortziretan iragarrita zegon bezela "Arno Mendi"n, su aundi bat egin zuten bertako Mendigoizale taldeak*". Arnon sua biztutzia ere!!!!

Aberri Egunaren ondorengo egunian ere ez ziran egon geldirik egonian. Hona hemen "traka finala": "*Hurrengo egunian, emengo E.A.B. eratuta zeukaten bezela, eman zuan Kalbario'ko elizan jaupa [meza] bat bertako apaiz jaun Urreizti'tar Mikel'ek goizeko bederatziretan notintza aundia bildurik. Ondoen, emengo ezpata dantzari txikiak dantzatu ziguten oso ederki. (…) Illuntzian, E.A.B'ren aretuan jai polit bat egin zan, txistulariak, bakarrizketa bat, eta itzaldi xamur bat egiñik, emengo abertzale gazte dan Urreizti'tar Narkis'ek, oso ondo*".

Izen batzuk

Maiatzeko artikuluan EABko emakume batzuen izenak eman genduzen. Oraingo honetan, berriz, 1934ko eta 1936ko batzar nagusixetan aukeratutako batzordekidien berri emango degu. Urte hasieran egin zitxuen batzar horrek.

1934ko ilbeltzaren 1eko batzarrian aukeratu zitxuenak: "*Lendakaria, Ituarte'tar Mikele. Ordezko, Astigarraga'tar Julene. Idazkari, Andonegi'tar Miren. Ordeko, Larrañaga'tar Jabiere, Diru zain, Txurruka'tar Karmele. Batzarkideak; Piker'tar Jone, Arratibel'tar Miren eta Arrieta'tar Elixabete*".

Handik bi urtera, 1936xan, Errege egun bezperan alkartu ziran Emakumiak eta batzorde berrixa eratu zeuen: "*Lendakari Sustaeta'tar Garbiñe, ordezko Arruti'tar Iñes, idazkari Elezgarai'tar Julene, diruzain Aizpurua'tar Josebe, batzarkide: Laskurain'tar Kepane, Arruti'tar Irene ta Arreitunandia'tar Josebe*".

Kontu jakiña da orduko prentsa abertzaliak izenak "euskalduntzen" zitxuala, esate baterako, Maria izenekuak Miren izatera pasatzen ziran eta Josefa izenekuak Josebe…

1936ko zerrenda horri erreparatuta, pertsona bat azpimarratu nahiko neuke: presidente kargua hartu zoan Garbiñe edo Purificación Sustaeta. Zuetako askok pentsatuko dezue, "presidente jartzeko denbora asko eukiko zoan hortan emateko!". Bai, zera!!!! Hamar seme-alabaren ama zan Nikaxio Andonegi "Zapaterua"ren andria. Bere bizitzako *leitmotiva*: famelixia eta aberrixa.

Eta ez pentsau salbuespena izan zanik, e!. Galdetu etxian zuen aitxona-amonei, kontu politxak ikasiko ditxuzue-eta. Askotan, aurrera egin aurretik, atzera begiratzia komeni da.

Josu Larrañaga Arrieta




Nautilus gela didaktikoa

Narvaezen omenez







Berrogei urte pasa badira Jesus Mari Narvaez eta Espe Azkarraga hirugarren plaiatik Saturraran bitartean fosilak biltzen hasi zirenetik. Inguru haietan ibiltzen ginen mutrikuarrontzat harritzarrak ziren haiek fosilak zirela ikasi genuen beranduago, eta pieza haiek mundu mailako errekonozimendua zutela jakin genuen ondoren, eta ammonite izena zutela.

Jesus Marik lehenengo egunetik esan duen moduan "*fosil horiek mutrikuarrak dira, Mutrikun jasotakoak dira eta nire gogoa horiek Mutrikun geratzea da*". Eta gogo horri bide ematearren, Udalak *Nautilus museoa* antolatu zuen herritar guztiei eta mundu osoari Jesus Marik eta Espek urteen poderioz egindako bilduma erakusgai jartzeko. Horrekin batera, bikoteari txoko bat prestatu zitzaion fosilak itsas-labarretatik atera eta erakusgai ipini bitartean egin beharreko lanetarako.

Urrats berri bat egin nahian, ammonite erraldoien bilduma bikaina han eta hemen sakabanatuta zegoela eta pieza guztiak batera edukitzea garrantzitsua zela ikusirik, Geoparkearekin batera eta Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzarekin, Udalak *Nautilus Ikerketa eta Didaktika Gela* prestatzea erabaki zuen, non tamaina guztietako piezak elkartu diren. Nautilus Museoa publiko orokorrari zabalik badago ere, Didaktika Gela honen helburua beste bat da: eskoletako gaztetxoei fosilen mundua erakustea eta unibertsitateko adituei lanerako txokoa eskaintzea. "*Egunen batean gela honetatik pasatu eta amoniteekin hasita gazte mutrikuarren bat paleontologo izatera iritsiko balitz, ni pozik*" esaten du Jesus Marik begiak piztuta.

Honenbestez, Ikerketa eta Didaktika Gelaren bitartez Mutrikuk maila berri bat jarri du Narvaeztarrei ondo merezitako errekonozimendua egiteko, eta amoniteen etxe diren itsas-labarretara iristeko ate den hirugarren plaiara jaisteko eskailera buruan plaka bat jarri da handik pasatzen direnek haren berri izan dezaten. Honela dio plakako mezuak: ***Mutrikuko Udalak eta Euskal Kostaldeko Unescoren Munduko Geoparkeak, herritar guztien izenean, Jesus Maria Narvaez Amoasorrain eta Esperanza Azkarraga Larzanguren senar-emazteei aipamen hau egin nahi diete Mutrikuko "Zazpi hondartzak" gunean urteetan eginiko lanari esker, ammonite erraldoi bilduma ikusgarria bildu dutelako eta udalarekin elkarlanean Nautilus Mutrikuko Ikasgune Geologikoan guztientzako ikusgai jarri dutelako***.

Ristorante AzkenEtxe
egurrezko labean egindako pizzak
italiar sukaldeko zapore guztiak
parrilladak · ospakizunak
(ezkontzak, familia-bazkariak, taldeentzako menu bereziak..)
egunero zabalik
943 60 34 39 · 688788693 · ristorante.azkenetxe@gmail.com · Kalbario gaina, Mutriku

APALLU
ITURGINTZA
Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61
San Agustin,3 - Mutriku
apallu@apallu.es www.apallu.es



XARKEIren marmarketa

GOIZEKO IZARRA IKASTOLA

euskara jatorrean hobe


Erderazko moldeak euskaraz ditugulako

Guk nola esaten dugu?

- *Mas o menos* erabakitxa daukagu
- *Ya ke* ez dan etorri, geuk jango degu.
- *Ves*, esan nizun hola zala.
- *Kasi-kasi* irabazi egin degu.
- *Lo ke pasa*, ez degula ikasi.
- *Ke ba!* Gauzak ez dira hola!

gurutzegrama

1 Irrist egin, labaiñ egin, batez ere ur ertzian sortzen dan goroldixua dala eta.
2 Itsasuan haizia ateratzen doanian olatuak gaiñaldian dakaen zuri koloreko kalparra.
3 Gure hondartzetan, haitz artian sortzen diran putzuetan aurkitxu leiken arraiñ txiki baiña buru-zabala.
4 Itsasuan arropen gaiñian jazten dan euri-txako irazgaitza; hori edo berde kolorekuak dira ohikuenak.
5 Itsasuaren azalian sortzen da. Laiñuetatik datorren konilla itxurako esku batek ura hart-zen doala diote, haize zakarra eta itxas bizixa sortuz.



Erantzunak: 1 Laprast 2 Katxopa 3 Andramostrua 4 Xira 5 Trabaiñerrua

hitza
herriaren informazioa
herriaren hizkuntzan
herriaren zerbitzuan

SUBELTZ
eguneko menuak, otartekoak...
Atxitxin kalea 10 · 943 60 44 98 · Mutriku

“Herrian dagoen behar bati erantzuten ari garela uste dugu”

Gaztetxetik sortu den iniziatibaren bitartez, herriko hainbat umek eta gaztek beraien ikasketetan aparteko laguntza jasotzeko aukera izan dute. Laguntza eskaintzen dutenak ere herriko gazteak dira, eta horretan jarraitzeko asmoa erakutsi digute.

Zerk edo nork bultzatuta sortu da iniziatiba hau?

2020ko azaroan jarri genuen martxan iniziatiba hau. Gazte asanbladako kide bat Lehen Hezkuntzako gradua ateratzen hasi eta Mutrikuko Goizeko Izarra Ikastolan praktikak egiteko aukera izan zuen azaroan. Praktikaldian zehar, hezkuntzan zeuden hutsuneez ohartu zen, horien artean, ikasle jakin batzuek eskolaz kanpo behar duten laguntza beharraz, edota laguntza ezaz. Orduan, laguntza hori bermatzeko talde bat eraikitzeko proposamena ekarri zuen asanbladara, eta gazte batzuk prest azaldu ginen. Gainera, aurrez, 2020ko maiatzean halako burutazioa ere izan genuen. Bestalde, konfinamendu garaian Gaztetxetik testigantza bilketa bat jarri genuen martxan; momentuan herritarren egoera nolakoa zen jakiteko, eta horri erantzun bat emateko asmoz. Hots, jaso genituen testigantza horietan, bigarren hezkuntzako ikasleak lanez gainezka eta azterketetara begira nahiko galduta zeudela aitortu ziguten. Beraz, ekainean zehar, Gaztetxea liburutegi modura irekitzea pentsatu genuen. Goizetan zein arratsaldeetan bertan egoten ginen, etortzen ziren ikasleei laguntzeko. Aldiz, ikastetxeekin ez ginen harremanetan jarri eta, beraz, ez genuen lortu haurrengana iristea. Alegia, ez genuen pentsatu lehen hezkuntzan horrelako beharra egon zitekeenik.

Nola jarri zenuten martxan? Deialdi baten bitartez akaso?

Ez genuen deialdi zabalik egin. Gazte asanbladako kide eta inguruko beste gazte batzuk animatu ginenez hamahiru pertsonako talde bat sortzea lortu genuen. Jarraian, Goizeko Izarra Ikastolarekin eta San Miguel Ikastetxearekin hitz egin, eta laguntza hori ondo letorkiekeen haurren zerrenda bat egitea erabaki genuen. Ondoren, ikastetxeek proiektu honen inguruko zehaztapenak eman zizkieten tutoreei.

Zein jatorriko eta adineko umeak etortzen zaizkizue?

Etxean etxeko hizkuntza euskara ez duten eta eskolako lanekin laguntza behar duten ikasleekin aritzen gara. Jatorri desberdinetakoak dira: senegaldarrak, errumaniarrak, pakistandarrak... eta gehienbat hizkuntza arazoak izaten dituzte. Hau da, Lehen hezkuntzako lehenengo mailatik hasi eta Bigarren hezkuntzako



lehenengo mailara arteko ikasleak ditugu. Horiek mailaka ditugu banatuta, eta bakoitzean 2-3 haur biltzen ditugu.

Zein laguntza mota eskaintzen duzue?

Euskara ikasten ari dira etorri berri diren ikasleak. Hala ere, gehiengoari etxeko lanekin laguntzen diegu. Errefortzu akademikoa emateaz gain, haurraren ongizatea oinarri hartuta, beste hainbat aspektu garatzen lagundu nahi diegu: gaitasun afektiboak, sozialak, komunikatiboak, emozionalak...

Eta, noiz eta non biltzen zarete?

Maila bakoitzak astean bi laguntza ordu izaten ditu; egun desberdinetan. Talde gehienek astean zehar ordu bat eta asteburuetan beste bat aukeratzen dute eta Gaztetxean biltzen gara beraiekin.

Ume edo haur horien familiekin nolabaiteko harremanik baduzue? Nola hartu dute beraien seme-alabei laguntzea?

Ez dugu familia guztiekin harremana mantentzea lortu, baina gehienekin bai. Beraien seme-alaben ikaskuntzaz arduratzen

ALEX ELEKTRIZITATEA
Alexander Elezgarai Agirrebengoa
· instalakuntza elektrikoak · domotika · telekomunikazioak
· mantenu eta muntaia elektrikoak · argiztapen diseinuak
638 713 685 • alexmutriku69@gmail.com · Mutriku

aparra
ZURETZAKO MODA
www.aparramoda.com
Erdiko Kale 29 20830 Mutriku Tlf. 943 604 594 645 033 561

dira, eta haurrak nola ikusten ditugun galdetzen digute. Alegia, beti eskertzen digute beraien haurrengatik egiten dugun esfortzua.

Ikastetxeekin kontaktuan jarraitzen duzue? Zein izan da beraien jarrera?

Bai, proiektua hasi aurretik jarri ginen beraiekin kontaktuan. Batetik, laguntza behar duten umeak identifikatzeko, eta bestetik, komunikazio aldetik modu bateratu batean lan egiteko. Ikastetxeetako irakasleek ume hauen egoeraren berri eman ziguten, eta informazio hori oso lagungarria egin zaigu. Gainera, ikastetxeetako irakasleak edozein zalantzaren aurrean laguntzeko prest azaldu dira. Batzuek haurrentzako materiala ere ematen digute, eta horrek gure lana errazten digu.

Entitate, elkarte, udalaren... laguntzarik jaso duzue?

Herriko bi ikastetxeen laguntzaz gain, ez dugu beste entitate edo elkarteren laguntzarik. Gaztetxetik sortu den dinamika bat da; asanbladako kideokin eta gure ingurukoekin eramaten dugu aurrera. Momentuko beharrak asanbladetan identifikatzen ditugu, eta jarraipenak egiten ditugu astero.

Zein zailtasun aurkitzen dituzue proiektu honetan?


Zailtasunetako bat esperientzia falta dela esango genuke. Gutako askok ez dugu aurretik horrelako esperientziarik bizi izan, eta zerbait berria da denontzat. Gainera, haur bakoitzari egokitzea oso zaila dela nabaritu dugu, eta haur bakoitzari behar duena ematea. Haur bakoitza mundu bat da, eta bakoitzak gaitasun eta zailtasun desberdinak ditu. Horrez gain, Gaztetxea ez zaigu ume hauentzat lekurik aproposena iruditzen. Espazio iluna da eta beste ekintza batzuetara dago bideratuta. Guk zerbait ganorazkoa eskaini nahi diegu, baina ez da eremu egokiena. Aurrera begira, beste espazio baten beharra ikusten dugu.

Eta, zer jasotzen duzue trukean?

Ikaskuntza ikaragarria. Haur bakoitzak bere berezitasunak ditu, eta bakoitzak zerbait desberdina eskaintzen digu. Horrez gain, dituzten beharrak ulertzeko aukera izan dugu, eta bakoitzarekin nola jokatu behar dugun ikasi nahian gabiltza. Haurrek aurrera-pausoak ematen dituztela ikustea, eta, gainera, gogoz etortzen direla jakiteak izugarri pozten gaitu.

Aurrera begira jarraitzeko asmoa daukazue?


Bai, jarraitzeko asmoa dugu. Herrian dagoen behar bati erantzuten ari garela uste dugu, eta oso pozik gaude orain arte egindako lanarekin. Ikasturte honetan, ekainaren bukaera arte jarraituko dugu. Hurrengo ikasturteari begira, taldea handitzea gustatuko litzaiguke; ume kopurua laguntza behar dutelako gehitzen bada, ongietorriak izango dira. Badakigu haur guztiengana ezin izango garela iritsi, ordea, gure esku dagoen guztia egingo dugu, zalantzarik gabe beraiek eta guk, guztiok irabaziko dugulako.



BERISTAIN
DENDA LURRINDEGIA ESTANKOA
Barrenkale, z/g
943 60 35 44


ALKOLEA ARDOTEGIA
Jon Andoni Basurko Pagoaga
Tel.: 943 60 35 99
alkolea.edariak@gmail.com
Barrenkalea, 2 - behea 20830 Mutriku
Edariak eta gehiago...

ZORIONAGURRAKZORION



OIER
Zorionak! Maiatzaren 17an 7 urte haundi bete dezulako, zure zaintzaile maitearen partez muxu pila bat!



XABALA eta TXORDO
Zorionak bixoi! 14an eta 12an.



UXUE
Zorionak zure bostgarren urtebetetzean! Segi holakotxe neska alaixa izaten familixa danon partez marrubizko muxuak zuretzat!



NAHIA eta MARKEL
Zorionak bikote eta muxu haundi bat ekainaren 6an eta 17an urteak betetzen baitizue. Zuekin ospatzeko zain gaituzue.

ZORIONTZEKO
ARGAZKI ZAHARRAK ERAKUSTEKO
kalaputxi2001@gmail.com # whatsapp 635748393

SAGARMIÑA
RAIKETAK S.L.
Hondartza 3-4, behea
31 postakutxa
20820 DEBA
Tel. eta faxa: 943 192 249
Mob. 629 639 685
629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

Argazki Zaharrak



Pedro Martinez "Tomorroto",
Juan Mari Arrieta "Bernabe"
eta Jesus Mari Arrizabalaga "Masillas".
1965 urte inguruan, *Kobeta* kobazulora sartzeko prest.



Inazito Uribesalgo eta Andres Alberdi
1968 urtean





FARMAZIA GUARDIAK 2021

2021	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	2021
Ekaina	2	2	2	1	1	1	4	4	4	4	3	3	3	1	1	1	1	2	2	2	3	3	3	3	4	4	4	2	2	2		Ekaina
Uztaila	2	1	1	1	4	4	4	4	3	3	3	1	1	1	1	2	2	2	3	3	3	3	4	4	4	2	2	2	2	1	1	Uztaila

EGUNEKO FARMAZIA GUARDIA ZERBITZUA / 9:00 - 22:00				
1	Hiart Burgoa	Deba	Astillero kalea 2	943 19 18 12
2	Amaia Zalduegi	Deba	Lersundi kalea 20	943 19 10 55
3	Lon Apraiz	Mutriku	Erdikokale 5	943 60 32 50
4	Lasuen-Elezgarai	Mutriku	Txurruka Tenienteak etorbidea 3	943 19 50 26
GAUEKO FARMAZIA GUARDIA ZERBITZUA / 22:00 - 9:00				
	Arantzazu Izpizua	Eibar	Ibarkurutze kalea 7	943 20 19 12

agenda

ARRAUNA

Uztailak 3, zapatua
KAE-2 / ARC-2 Ligako jardunaldia
YURRITA Bandera
Arratsaldean, Mutrikuko uretan



MENDI IRTEERAK

EKAINAK 20
Gorostapolo-Hautza-Izpegi
UZTAILAK 2, 3, 4
Linás de Broton (Pirineoak)
IRAILAK 12
Larla-Jarla ibilaldia
URRIAK 17
Elurretxe-Bianditz-Artikutza
AZAROAK 7
San Tirso
ABENDUAK12
Debako mendi inguruak
Urte zaharretako bazkaria

Burumendi Mendi Elkartea

kalaputxi2001@gmail.com
whatsappa 635748393
uztaileko aldizkarian
argitaratzeko
uztailaren 2rako
bidali zuen mezuak

ODOLA EMATEA 2021

Gipuzkoako Odol Emaileak

ekainak 25
abuztuak 20
urriak 22
abenduak 03
18:00etan
anbulatorio zaharrean edo jakinaraziko den tokian

adats ANDONILARREA
943 60 39 45 - Barrenkale 1



MAIDER PINTO
estetika eta terapia naturalak

Kosmetika naturala eta ekologikoa!

Depilazioak · Pedikura-manikura · Gorputz eta aurpegiko tratamenduak · Pistola brontzeatzailea

Nahi al duzu uda honetan azal osasuntsua eta polita erakutsi?

Zu zaintzea da gure helburua!

Barrenkale 9, behea · 20830 MUTRIKU · Tel. 650 341 768

CONSERVAS

YURRITA

1867

GASTRONOMIKA

ZUZENEKO ETA ONLINE SALMENTA

BERTAKO ARRAIN KONTSERBA TRADIZIONALAK

© Kantauriko Antxoa eta Bokarta, Hegaluzea, bestelako espezialitateak



ZUZENEKO SALMENTA LANTEGIAN

Udako ordutegia:
Astelehenetik-ostiralera: 10:00-14:00 eta 17:00-19:00
Larunbata: 10:00-13:00

Nola iritsi Mutrikutik/Ondarroatik:
Ondarroaranzko errepidea z/g (Gi-638, 58km).
Yurrita Group enpresaren aurrean, errepidearen beste aldean. Google Mapsen Casa Mauleon Etxea edo Yurrita Group jarri.



GAINERA!!

Online Salmenta etxera bidaliko dizugu

www.tiendayurrita.com